

# AMETSEN KOBAZULOA

Ai ama! Non nago! Hara zer nolako kobazulo arraroa! Iluna da eta lau bide desberdin ditu, nik...bide berdea aukeratuko dut. Hau bai leku bitxia, baina, zer gertatzen ari da! Lagundu mesedez! Bat-batean, San Mamesen nago, partidu bat ikusi behar dut. Nire eserlekuan nagoenean, Aduriz gure aldera dator eta zelaira sartzerako gonbidatu nau. Sinetsi ezinik nago; halere, pozez beterik zelaira jaitsi naiz.

Athleticeko arropa jantzi dut eta partidu osoa jokatu. Hau da hau zirrara nire gorputzak duena, gol bikaina sartu diot atezainari faltaz. Partidua bukatu denean, Athleticeko zale guztiak nire izena esaten ari dira, baina...ban!

Kobazuloan nago berriro. Oraingoan ez dago bide berderik, hiru bide daude, eta bide urdina hartu dut.

Minutu bat pasatu da bide urdinean nagoenetik eta blai-blai eginda nago. Arranopola! Itsasoan nago eta ura bero-bero dago. Ni flotagailu batean nago, orduak pasa dira eta ez dut inor ikusten. Minutu batzuk geroago itsasontzi moduko bat ikusten dut eta harantz noa. Nahiko hurbil nagoenean marrazo bat dela konturatu naz. Segituan igeri egiten hasi naz arroka bat zegoela konturatu gabe eta bere aurka jo dut. Marrazoa gainean dut! Aaaaah! Ni jateko ahoa zabaldu duenean...plin!

Kobazuloan nago bi biderekin. Athleticeko zalea naizenez bide gorria aukeratu dut. Bat, bi, hiru, ez nago kobazuloan, herri batean baizik. Bertan paseatzen nagoela, neska baten aurka jo dut eta iraintzen hasi zait.

-Aizu! Mukizu itsusia! Dama bat ez da horrela tratatzen- esan dit.

-Bai, konturatu naiz damen artean azkena zarela –erantzun diot.

-Artaburu hori! Zuk ez dakizu zer den edertasuna! –erantzun dit txolinak.

-Nik agian ez, baina zuk ez dakizu zer den pertsona bat izatea! –erantzun diot adorez.

-Bai, badakit! –esan dit urduri.

-Ez! –ebaki diot. Lehenengo pertsonak izan behar gara, eta gero, agian, ederrak – amaitu dut.

-Joan zaitez antzarak ferratzera! –esan dit amorruez.

Aldendu denean, bat-batean...ban! Kobazulora berriro. Bide bakar bat gelditzen da. Ni beldur gabe barrura noa, eta betiko moduan bat, bi, hiru eta plaza batean nago. Mutiko batzuk dantzan daude eta *puntapioa* egitean mutiko bati praka apurtu zaio, beste bati puzkerra irten. Hara zer nolako barreak! Txokolatea banatzen duen batek estropezu egiten du eta guztia dantzari bati erori zaio, eta gainera, agintarien

dantzan, txapela bota duenean, udaletxeko balkoian zintzilikatuta gelditu da. Ja, ja, ja... nik ezin dut gehiago eta ban! Kobazulora.

Bide erraldoi bat dago eta gaizki sentitzen naiz. Ni bide barrura noa argitasun batek erakarrita.

Ametsendako egun berri bat hasi da: eskolara doa, sentitu dituen sentazioak desagertu dira eta eguna igaro ondoren berriz bere barneko emozioz beteriko kobazuloak aurkitzeko prest dago.